

2. PLANIFIKATZEKO SISTEMA

2.1. Planifikatzeko prozesua esku hartzeko prozesuaren barne

Ebaluaketa eta programaketa, berez dira esku hartzea.

Komenigarria da zaintzea, bereziki, esku hartzeko prozesuaren lehenengo eginkizunak. Beharren eta baliabideen ebaluaketan hutsegite batek ondorio larriagoak ditu, jardueren diseinuan edo baliabideen, denbora epeen, eta abarren zehaztapenean izan ditzakeenak baino.

- Planifikazio mailak

Planifikazio estrategikoa: antolaketaren etorkizuna (epe luzera) definitzeko eta bideratzeko erabakiak hartzeko prozesua (bestelako aukerak ere izan behar dira) prozesu sistemiko bat da, helburuak zehaztuko dituen, eskura izan dezakeen lantzailearen beraren eta bere eragina islatzen duen inguruaren gaineko informazioan oinarrituta. Lantzailearen eginkizun nagusia, barneko zein kanpoko errealitateari erantzuteko helburuak zehaztea da (ekintza estrategikorako ildoak).

Planifikazio taktikoa: helburuak lortzeko (ildo estrategikoak) baliabideen antolamenduan (ekintzak, giza baliabideak, baliabide materialak, denbora epeak,...) oinarritzen da, nagusiki. Helburuak mugatzen ditu ekintzak, baliabideak,... zehaztuz

Planifikazio operatiboa: egoera jakinetan aplikatu daiteke eta ekintzak garatzeari zuzendurik dago. Antolatu eta gauzatu behar diren jardueren deskribapena ahalik eta zehatzena izatea eskatzen du.

Planifikazio estrategikoa epe luzera begirako eginkizuna da, planifikazio taktikoa epe ertainerakoa eta planifikazio operatiboa epe laburrerakoa. Gure kasu honetan, lau urte, bi eta bat, hurrenez hurren.

Ondoren, planifikazio prozesua, pausoz pauso, azalduko dugu esku hartzeko prozesuaren barne.

1. Lantzailearen nortasunaren definizioa edo eguneratzea

Prozesu guztia erakundearen nortasunaren (eginkizuna, baloreak eta zerbitzuak-hartzaileak bikoteak) definizioarekin edo eguneratzearekin hasten da.

EGINKIZUNA: Nor garen, zer egiten dugu eta zertarako eta norentzako egiten dugun lan jakitea.

Zein den eginkizuna zehazteko, aldezturik, lantzaile, bere helburuen (helburu nagusiak) hartzaileen, bere helburuak lortzeko erabiltzen duen forma edo jardura nagusien (zerbitzuak, esku hartzeko estrategiak) eta bere jardura burutzen duen eremu geografikoaren arabera deskribatu behar da. Eginkizunaren aitortzea egiten denean taldearen edo erakundearen baloreak ere sar daitezke.

Baloreak tentsioak dakartzate berez, eta baloreetan oinarritutako lantzailearen zuzendaritza ezar daiteke eta ezarri behar da. Beraz, zehaztu behar da nola bizitzen ari den gaur egun balore jakin bat (zehatzak) eta zein alorretan hazi edo hobetu nahi den (erronkak).

Baloreek erakunde osoan dute eragina eta, horrenbestez, lotura dute hala esku hartzearekin, nola kudeaketarekin, antolaketa moduekin, barneko funtzionamenduarekin,... . Beste era batera esanda, lanskailaren "lehiakortasun maila", beste motatako taldeetatik bereizten dituen eta "beren zerbitzuak kontratatze" arrazoi ona izan daitezkeen baloreak.

Zerbitzuak-hartzaileak bikoteak (produktua-merkatua) inguruaren azterketa bideratuko du. Gauza da zer zerbitzu ematen diren edo eman nahi diren eta zer hartzailerik (egungo proiektuak eta proiektu berriak) eman nahi zaizkien zehaztea. Zerbitzuak, erakundearen eginkizunen barne egon behar dute.

Hartzaile hauen (beharren ebaluaketa) eta zerbitzuen (baliabideen ebaluaketa) arabera egingo da azterketa. Orintsu adierazi den bezala, ematen diren zerbitzuak eta esku hartzearen hartzaileak, eginkizuna definitzen dituzten elementuetako bi dira.

2. Errealitatearen azterketa (azterketa estrategikoa)

AZTERKETA ESTRATEGIKOA

Etorkizunean erakundean eragina izan dezaketen elementuen bilakaera identifikatzeko eta zehazteko (kanpoko azterketa) eta erakundearen gaitasuna, egungo egoeraren baloraziotik abiatutik, inguruan izan daitezkeen aldaketa horiei aurre egiteko (barneko azterketa) informazioa biltzea eta aztertzea ahalbidetzen du.

KANPOKO EDO INGURUAREN AZTERKETA

Inguruaren azterketako oinarriko bi elementu nagusiak dira hartzaileen beharrak ("sistema-bezeroa") eta hartzaile horiekin lan egiten duten baliabideak edo zerbitzuak, berauekin lehiakor edo lankidetzan jarduteko.

Beharren ebaluaketan kontuan hartu beharrekoak dira aldaketa demografikoak, bizitza moduak, lege eta teknologia aldaketak,

Egungo egoera identifikatzeaz gainera, faktore hauek izan dezaketen bilakaera igartzea da helburua.

Inguruan erakundearen eginkizunaren garapena erraz (aukerak) eta traba dezaketen (mehatxuak) alderdiak aurki ditzakegu.

Lanskailaren mikroinguruaren (erakundearen sistema-bezeroa, inguruko testuingurua) eta makroingurua bereizten ditugu (erakundeak lan egiten duen zerbitzu sistema edo sistemak, autonomia erkidegoaren, Estatuaren, Europaren testuinguruaren barne).

BARNEKO EDO LANSAILAREN AZTERKETA

Bere egungo ahalmena eta izan dezakeena aztertzean datza eta erakundearen erantzun ahalmena baldintzatzen duten elementuetan oinarritzen da.

Lansailaren azterketa inguruaren, eremu geografikoaren azterketaren osagarri da. Lansaila da bere ingurura egokitu behar duena.

Lansailaren azterketak esku hartzeko alor multzoa eta lansailaren kudeaketa hartu beharko ditu kontuan eta kalitate sistemen ezarreraren markoan egin ahal izango da, beti ere "prozesu erabakigarri" gisa identifikatzen diren esku hartze eta kudeaketa prozesu jakin batzutan oinarrituz.

DAFO AZTERKETA

Azterketa matriz bat da, informazio guztia, azterketa estrategikoaren xedearen arabera sailkatzeko eta laburbiltzeko aukera ematen duena, hots: inguruan dauden aukerak eta mehatxuak (kanpoko azterketa) eta lansailaren beraren ahuleziak eta indarrak (barneko azterketa) identifikatzen ditu, ondoren aurre egin eta beraietaz baliatzeko.

3. Programazioa eta ebaluaketaren diseinua

Programaketa azterketan edo ebaluaketan sumatutako beharrak eta arazoak helburu bilakatuz hasten da eta, hortik aurrera, jarduerak, eginkizunak, epeak esku hartzearen agenteak, baliabide material eta ekonomikoak, eta ebaluaketaren adierazleak edo parametroak definitzen dira (aldeztatik bestelako adierazle sistema bat egon arren, beharrezkoa izango da zehaztea zein mailan bete nahi diren, adierazle jakin horrek dituen indar edo alderdiak).

Beraz, programaketaren unean, ebaluaketa bera diseinatzen da, ebaluaketaren adierazleak edo parametroak definitzen baitira. Komenigarria da, era berean, ebaluatzeko beharrezko izango dugun informazioa nola bilduko dugun aurreikustea.

Hau guztia programaketako hiri maileri aplikatu daiteke: maila estrategikoari, taktikoari eta operatiboari.

Ondorioz, proiektuek edo jarduerak ondorengo elementu hauek jasotzen dituzte: helburu nagusiak, zehatzak, operatiboak, jarduerak, eginkizunak, epeak, erantzuleak, baliabide materialak, aurrekontua.

Estrategia eta kudeaketa planetan ere (gizarte-hezkuntzan esku hartzeko programaren garapen plana) elementu berdinak jasotzen dira. Plan Estrategikoak helburu orokorrak eta zehatzak (ekintza estrategikorako ildoak) eta estrategia aldi osorako epeak ezartzen ditu. Kudeaketa Planak ustiaketa parametroak (helburu operatiboak), ekintzak, erantzuleak, epeak eta jarduerako lehen aldirako aurrekontuak zehazten ditu (bi urte gure kasuan).

Planifikazio estrategikoaren ildoan helburu orokorrei "ildo estrategikoak" deitu ohi zaie eta helburu zehatzei "estrategiak". Kudeaketaren hizkuntzan, helburu operatiboak (kudeaketa planetan sartuta egon ohi direnak ordurako) "ustiaketa parametroak" deitzen zaie.

Kontuan izan behar da, horretaz gainera, helburuak ere, ekintzak direla berez, eta ustiaketa parametroetan azal daitezkeela, hala azken helburuei, nola aurreikusitako ekintzen garapen egokiari begira.

3.1. Plan estrategikoa egitea.

Estrategia mailan azterketatik edo ebaluaketatik programaketara igaro, "ikusker" idatziz hasten da.

DAFO matriz, adierazi dugunez, azterketaren laburpen bat da eta "ikusker" epe ertain luzerako helburu orokorren laburpen bat (ildo estrategikoak).

IKUSKER: Nora iritsi nahi dugu, erakundearen "bizi proiektua". Etorkizunerako nahi den irudia erakusten du. Zer izan nahi dugu 5 urte barru.

Beste ideia interesgarri bat da, lansailaren alderdi guztiak zabaldu gabe, Planaren printzipio zuzendari bat definitzea, garatu nahi den strategiaren muina izango diren elementuak ezarriz.

Behin ikusker eta/edo planaren printzipio zuzentzailea finkatu ondoren, helburu zehatzak (estrategiak) ezartzen dira esku hartze eta kudeaketa mailan, beti ere epe ertain eta luzera begira.

Zenbaitetan, ikusker edo printzipio zuzentzailea, laburpen gisa, behin helburu zehatzak (estrategiak) finkatu ondoren idazten da.

Helburu orokorren (ildo estrategikoak) eta zehatzen (estrategiak) multzoa eta estrategiak garatzeko ezarritako helburuek PLAN ESTRATEGIKOA osatzen dute, zentzu zorrotzean.

Nolanahi ere, Plan Estrategikoa jasotzen den agirian bestelako alderdi batzuk ere jasotzen dira:

- Aurkibidea.
- Sarrera: Planaren aurkezpena (gauzatzeko izan diren arrazoiak eta erabili den prozedura), agiriaren antolaketa.
- Nortasuna: eginkizunen eta baloreen aitorpena (zehatzak eta erronkak).
- Azterketa estrategikoa: ahuleziak / mehatxuak, indarrak / aukerak eta laburpena (dafo).
- Ildo estrategikoak: ildo estrategikoak, ildo estrategikoen deskribapena, ildo estrategikoak, estrategiak eta epeak.
- Plan Estrategikoaren garapena eta segimendua: aurkezteko aurreikusi diren ekintzak, martxan jartzea, segimendua.

3.2. Programaren garapen plana egitea (kudeaketa plana)

Behin ildo estrategikoak eta estrategiak definitu ondoren, epe ertain laburrean eragina izan nahi den alderdiak ezarriko dira lehentasuna emanez. Alderdi hauek kudeaketa planaren barne garatuko direnak izango dira (programaren garapen plana).

Une honetan, maila taktikoan jarri gara, beraz, epe labur ertaineko planteamenduan. Gure kasuan, plan estrategikoan lau urteko denbora epe bat jasotzen da eta kudeaketako bi planen bidez, bakoitza bi urtekoa, garatzen da.

Ohi denez, izan ohi dira kudeaketa planarekin batera, bestelako departamentu planak (giza baliabideen plana, hezkuntza plana, komunikazio plana,...), baina kudeaketa plana egin ondoren erabakitzen direnak izaten dira eta iraupen bera izaten dute.

Alabaina, nahikoa iritzi dugu programaren garapen planaren barne, kudeaketa alorkako helburuak finkatzea, beti ere, gizarte-hezkuntzan esku hartzeko programaren heldutasun unearen eta gizarte zerbitzu komunitarioen kudeaketa eginkizunen mailaren arabera.

Honezkero adierazi dugu kudeaketa planak ustiaketa parametroekin (helburu operatiboak) eta lehentasuna eman zaien ildo estrategikoei (helburu orokorrak eta zehatzak) lotutako ekintzekin osatu ohi dela, ekintza bakoitzerako arduradunak, epeak eta aurrekontuak zehaztuz, bide batez. Horiek guztiak taula batean irudika daitezke (ikus "programaren garapen plana").

3.3. Proiektuak egitea, jarduerak.

Proiektuen edo jardueren planifikazioa maila operatiboan (epe laburrean) ematen da. Gure kasuan, urte bete. Hala ere, izan daiteke inoiz, urte betetik gorako eperako diseina eta ebalua daitekeen proiekturik.

Ohi denez proiektuetan adierazitako elementu guztiak jasotzen dira: helburu orokorrak, zehatzak,... operatiboak, jarduerak, eginkizunak, agenteak, epeak, giza baliabideak eta baliabide materialak, aurrekontua.

4. Inplementazioa

Inplementazio gisa, plan bat, programa bat, proiektu bat martxan jartzeko aldia iristen dugu,

5. Ekintza

Programatutako jardueren eta eginkizunen garapena.

6. Ebaluaketa

Behin ekintza amaitu ondoren, programatutako denbora iragan ondoren, nahiz eta ez hori bakarrik, nolabaiteko ebaluaketa jarrai bat ere izan behar baitu, ebaluaketa egiten da, aldeztu aurretik egindako behar eta baliabideen (sumatutako egoera berriak, aldaketak balorazioetan eta orientabideetan) edo programaketaren bestelako alderdiren baten (helburuak, jarduerak, epeak, ebaluaketaren adierazleak,...) ebaluaketa eztabaidatuz.

Hala, ebaluaketak planifikazio taktikoaren barne sartuko dira eta, gure kasuan, bi urtez behin egingo dira.

Programaren ebaluaketa eta erabiltzaile bat edo erabiltzaile talde bat xede duen txostena, ondorengo eskemaren arabera egin behar dira:

- ✓ Kokapena
- ✓ Deskribapena
- ✓ Balorazioa
- ✓ Orientabideak

Kokapenak ebaluaketaren edo txostenaren irakurketa erraztu behar du.

Komenigarria da sartzea:

- ✓ Aurkibide bat.
- ✓ Txostenaren edo ebaluaketaren xede den programaren, proiektuaren, jardueraren, kudeaketa arloaren edo erakundearen deskribapen labur bat.
- ✓ Aurreko programazioaren laburpen bat.
- ✓ Audientziari, bere interesei, memoriaren/ebaluaketaren/txostenaren helburuei, erabilitako iturriei eta gauzatzeko baldintza orokorre buruzko informazioa.
- ✓ Oharrak agiria irakurtzeko moduari buruz (komenigarri izan ohi da kokapenarekin hastea, ondorioetara igarotzea eta atzera joatea deskribapenera iritsi arte).

Deskribapena, oinarrian, izaera koantitatibokoa izango da eta ondoko alderdi hauek landu beharko ditu:

- ✓ Programaren erabiltzaileen deskribapena (erabiltzaileen kopurua guztira eta proiektu motaka, erabiltzaileen ezaugarriak –adina, sexua, zona,...-).
- ✓ Lorpenen deskribapena (ebaluaketetan bakarrik, memorien edo zenbait txostenen laburpena): lortutako helburuak eta lortu ez direnak proiektu motak, erabiltzaileen azpitaldeak, eragina –ahal bada adierazleak erabili behar dira-.
- ✓ Produktuen deskribapena (jarduerak proiektuka, jarduera moten sekuentzia jasoz, agente desberdinen dedikazioa).
- ✓ Eginkizunen deskribapena (proiektuekin/jarduerekin lotutako eginkizunak eta ardura zeharkako/kudeaketarekin lotutako eginkizunak, eginkizunen moten sekuentzia eta agente desberdinen dedikazioak jasoz).
- ✓ Giza baliabideen, baliabide material eta ekonomikoen deskribapena.
- ✓ Alderdi baldintzatzaileen deskribapena

Behin deskribapena egin ondoren, ahalik eta objektiboena izango dena, azterketa edo balorazioa egingo da.

Balorazioak berez ekarriko du:

- ✓ Programatuta dagoenaren aldean, hau da, erabiltzaile-hartzaile, lorpen, jardura, eginkizun, eginbehar, sekuentzi, denbora-epe, koordinazio lerro, baliabideen antolaketa eta abarren inguruan izandako aldaketak identifikatzea.
- ✓ Arazoak, hutsuneak, defizitak, aurkitutako zailtasunak, arrakastak,... identifikatzea.
- ✓ Arrakasta eta porroterako arrazoiak aurkitzea: proiektuko barne faktoreak, faktore baldintzatzaileak,... .
- ✓ Lortutakoa baloratzea, funtzionatzen duena estandarizatu ahal izateko.

Balorazioa egiteari begira, lorpenen deskribapenetik abiatu behar da eta zergatik lortu diren ala ez, zenbait helburu aztertu, beti ere ondorengo sekuentziari jarraiki azterketan:

- ✓ Erabiltzaileak: helburuen egokiera erabiltzaileen ezaugarrietara, haien hasiera egoera,
- ✓ Jarduerak: Erabiltzaileen ezaugarriak, egoera, parte hartzeko baldintzak,
- ✓ Eginkizunak: sekuentzia, denbora-epeak,
- ✓ Giza baliabideak: eginkizunen egokiera, hezkuntza beharrak,
- ✓ Baliabide materialak: Baliabide materialen beharrak.
- ✓ Aurrekontua: baliabide ekonomikoen beharra.
- ✓ Alderdi baldintzatzaileak, barnekoak zein kanpokoak.

Komenigarria izaten da balorazioaren laburpen bat egitea, alderdi adierazgarrienak eta atzemandako arazo nagusienak jasoz edo arreta jarri den erabiltzaileen, proiektu/jarduera, eginkizun, giza baliabide, baliabide material eta ekonomiko edo erakunde mailan eta mikroinguruan edo makroinguruan egin beharreko aldaketak nabarmenduz.

Laburpenaren ondoren, hurrengo programazioa egiteko orduan kontutan hartu beharreko jarraibideak definitu behar dira, eskema berdinari jarraiki.

Egin behar diren aldaketak egitea da helburua, alegia:

Esku hartzearen helburua mugatzea edo eguneratzeari buruz (xedeak/helburuak eta hartzaileak)

- ✓ Eragin berezia izan nahi den helburuak.
- ✓ Esku hartzearen xede izango diren hartzaile azpitaldeak.

Metodologiari, baliabideei eta inguruari buruzko aldaketei buruz

- ✓ Garatu beharreko proiektu mota
- ✓ Esku hartzeen kopurua, proiektu mota eta erabiltzaile kopurua (ratioak).
- ✓ Jardueretan eta esku hartze eta kudeaketako eginkizunetan (prozesuak) sartu beharreko hobekuntzak
- ✓ Baliabideen zuzkidurari buruzko helburuak (giza baliabideak, materialak eta ekonomikoak)
- ✓ Inguruaren eskaeratan izandako aldaketak (alderdi baldintzatzaileak)
- ✓ Eta abar.

Ikusi ahal izan denez, bai deskribapenean bai balorazioan eta jarraibideak ezartzeko unean, kontuan hartzen diren elementuak berdinak dira: erabiltzaileak-hartzaileak, helburuak/lorpenak, jarduerak, eginkizunak, giza baliabideak, baliabide material eta ekonomikoak eta alderdi baldintzatzaileak.

AUKERA ZUHAITZA – Planifikaziorako tresna

HARTZAILEAK	BEHARRAK	Tresnak
Erabiltzaileak – Hartzaileak	Prestazioak, ibilbideak, betebeharrak ezagutzea...	Fitxa teknikoa
Administrazio publikoak	Programaren gaineko informazioa eta haren garapena.	Fitxa teknikoa Evaluaketen laburpena
Kontsortzioa eta Gizarte Zerbitzu komunitarioak. Zuzendaritza.	Udal programetako ekintzak, Gizarte eta Hezkuntza alorrean Esku Hartzeko Programa markoan, Kontsortzioaren ekintzen multzoaren barne eta udal gizarte zerbitzuetan biltzea. Udalerri desberdinetan garatutako programen berri izatea (erabiltzaile kopurua eta mota, ekintzak eta lorpen adierazgarrienak,...) eta esku hartzearen emaitzak udalerrian. Programetako edo udal programaren informazio adierazgarrienera iristea. Antolaketa bere osotasunean orientatzea eta lehentasunak finkatzea esku hartze eta kudeaketa ekintzetan.	Gizarte-hezkuntzan Esku Hartzeko Programa markoa. Ingurune Irekiko Hezkuntza Plana Udal gizarte zerbitzuen Plan Estrategikoa eta programaren garapen plana Evaluaketen laburpena Udal programaren garapen plana. Evaluaketen laburpena Gipuzkoa edo udalerri mailako azterketak. Ingurune Irekiko Hezkuntza Plana Udal gizarte zerbitzuen Plan Estrategikoa
Kontsortzioa / Udala Komunikazioa	Programaren, programen helburuak eta beharrak ezagutzea.	Programen garapen planak (komunikazio arloko helburuak).
Pertsonen kudeaketa / Kontsortzioa, Udala eta zerbitzuak ematen dituzten erakundeak	Pertsonak biltzeko beharrak ezagutzea, hezkuntzarako betebeharrak (esku hartze duten agenteen eskumenak handitzea, hezkuntza arloko ekintzen bidez lor daitezkeen helburuak, esku hartzearen inguruan,...), laguntza psikosozialeko betebeharrak.	Programen garapen planak (giza baliabideen alorreko helburuak)
Kontsortzioa / Udala Administrazioa	Jardueren garapenaren inguruko behar ekonomikoak.	Programen garapen planak (baliabide ekonomikoen alorreko helburuak eta aurrekontua ekintzaka)

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

HARTZAILEAK	BEHARRAK	Tresnak
Udal programetako eta taldeen arduradunak	Udal programa bideratzea. Taldeen ekintza zehaztea (hasierako komunikazioa) eta esku hartzea bideratzea helburuetan, taldeen metodologian bat etorriz, kohesionatuz,... . Esku hartzearen etengabeko hobekuntza	Programa Markoa Beharren eta baliabideen ebaluaketa (komunitatearen azterketa) Udal Programaren Garapen Plana Evaluaketak
GLU taldeak (gizarte langileak eta hezitzaileak)	Esku hartzea bideratzea lurraldean Banako, taldeko eta komunitateko esku hartzea planifikatzea	Beharren eta baliabideen ebaluaketa (komunitatearen azterketa) Udal Programaren Garapen Plana Evaluaketak Banako ebaluaketaren fitxa Programaketaren fitxa
Proiektuko taldeak (profesionalak eta bolondresak)	Beren eginkizuna bideratzea, kontsentsuatzea, programatzea eta ebaluatzea	Bederatzi gaien eredua. Helburuak hipotesi bidez azaltzeko sistema. Fitxa teknikoa. Programaketaren fitxa.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

PLANIFIKAZIO PROZESUA

MAILA ESTRATEGIKOA

EGINKIZUNAK	NORK	NOIZ	NOLA
Azterketa diseinatzea	Hezitzaileak udal programako arduradunarekin	Lau urtetara, ebaluaketen laburpena egin ondoren	Audientzia, helburuak, metodologia, arduradunak eta epeak, baliabideak,... definituz Ebaluaketen emaitzen eta lehentasuna duten behar, hartzaile, baliabideen (proiektuen) arabera.
Inguruaren azterketa (beharren eta kanpoko baliabideen ebaluaketa)	Hezitzaileak GLU Taldeak Gizarte Zerbitzuetako Udal Departamentuko taldea	Azterketaren diseinuaren ondoren	Kontsortzioak emandako datuak txertatuz. Erroldaren azterketa Behaketa inguru irekian. Elkarrizketak, adingabekoein, gazteekin, familiekin Elkarrizketak baliabideekin
Antolaketaren azterketa	GLU Taldeak Departamentuko taldea	Inguruaren azterketaren ondoren	Baliabide propioen ebaluaketa Hobetu behar diren alderdien azterketa kudeaketa alorka.
Inguru irekiko hezkuntza planaren helburu orokorrak eta zehatzak, epe ertainera (ildo estrategikoak eta estrategiak).	Batzorde tekniko eta Kontsortzioko Gobernu Batzordea	Ebaluaketen laburpenaren eta udalerrri bakoitzean egindako azterketen ondoren (martxan dauden programa desberdinak)	Esku hartzearen eta oinarriko kudeaketaren helburuak epe ertainera adieraziz (lau urte)
Udal programaren helburu orokorrak eta zehatzak epe ertainera (ildo estrategikoak eta estrategiak).	Departamentuko taldea (programa markoarekin eta Kontsortzioak ezarritako ildoekin bat etorritik).	Inguruaren eta antolaketaren azterketaren eta Kontsortzioak hurrengo lau urteetarako ildoak finkatu ondoren.	Esku hartzearen eta oinarriko kudeaketaren helburuak epe ertainera adieraziz (lau urte)

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

MAILA TAKTIKOA

EGINKIZUNAK	NORK	NOIZ	NOLA
Inguru irekiko Hezkuntza Plana egitea –kudeaketa plana- (2 urte)	Batzorde tekniko eta Kontsortzioko Gobernu Batzordea	Udalerri bakoitzak ildoak finkatzen dituenean	Lehentasunak ezarri ondorengo bi urteetarako helburu orokor eta zehatzetan. Ustiaketa parametroekin (helburu operatiboak), eginkizunekin, arduradunekin, epeekin eta aurrekontuarekin lotuz
Udal Programaren Garapen Plana egitea –kudeaketa plana. (2 urte)	GLU Taldeak Departamentuko taldea (programa markoarekin eta Kontsortzioaren inguru irekiko hezkuntza planarekin bat etorritik).	Udal programaren helburuak lau urtetara ezarri eta Kontsortzioak Inguru Irekiko Hezkuntza Plana egin ondoren.	Lehentasunak ezarri ondorengo bi urteetarako helburu orokor eta zehatzetan. Ustiaketa parametroekin (helburu operatiboak), eginkizunekin, arduradunekin, epeekin eta aurrekontuarekin lotuz

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

MAILA OPERATIBOA / Proiektuen kudeaketa


EGINKIZUNAK	NORK	NOIZ	NOLA
Banako proiektuen programaketa (familia)	Hezitzaileak eta kasua daraman gizarte langile arduradunak, eskuhar dezaketen gainontzeko profesionalekin batera	Edozein unetan	Hasierako ebaluaketa bat eginez, banako ebaluaketa fitxan oinarrituz. Programaketa fitxan ezarritako elementuen multzoa begiratzuz.
Taldeko proiektuen programaketa	Hezitzailea edo hezitzaileak	Udal Programaren Garapen Plana egin ondoren eta edozein unetan	Hasierako ebaluaketa bat eginez, banako ebaluaketa fitxan oinarrituz. Programaketa fitxan ezarritako elementuen multzoa begiratzuz.
Igarobideko proiektuen programaketa	Gizarte normalizatuko hezitzailea edo hezitzaileak (profesionalak, bolondresak)	Udal Programaren Garapen Plana egin ondoren eta edozein unetan	Hasierako ebaluaketa bat eginez, banako ebaluaketa fitxan oinarrituz. Programaketa fitxan ezarritako elementuen multzoa begiratzuz.
Proiektu komunitarioen programaketa	GLU taldea eta/edo Departamentuko taldea.	Udal Programaren Garapen Plana egin ondoren eta edozein unetan	Hasierako ebaluaketa bat eginez. Programaketa fitxan ezarritako elementuen multzoa begiratzuz.

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

HIRU MAILATAN

Ebaluaketa	Kasu bakoitzean zehaztutako agenteak / taldeak	Ekintzaren ondoren: urtero proiektuei dagokienez eta bi urtero planei dagokienez Lau urtean behin biurteko ebaluaketen laburpen bat eta azterketa berri bat egiten da.	Ebaluaketa edo txosten (banakoak) guztiak lau atal hauek jaso behar dituzte: kokapena, deskribapena, balorazioa eta programaketarako jarraibideak. Ebaluaketa guztiek ondoren zerrendatzen diren elementuak, eta proposatzen den orden berdinean, deskribatu, baloratu eta jarraibideak finkatu behar ditu, hau da: erabiltzaileak – hartzaileak: lorpenak; jarduerak (produktuak); eginkizunak (prozesuak); giza baliabideak eta baliabide material eta ekonomikoak, alderdi baldintzatzaileak
------------	--	--	--

ESKU HARTZEAREN PROZESU OROKORRA¹



¹ Programa markoan haur eta gazteak ardatz hartutako esku hartzeko prozesua (banako proiektuak, taldekoa eta igarobide planak) xehetasunez deskribatzen da.

2.2. PLANIFIKATZEKO UNITATEAK, MAILAK, EMAITZAK ETA TRESNAK.

UNITATEA = Planifikazioaren subjektua

MAILA = Denbora irismena eta zehaztasun maila edo jaso behar diren elementuak (helburuak, ekintzak, baliabideak,...).

HELBURUA = Pertsonak, kolektiboak eta eragina izan nahi den aspektuak (hartzaileak-xedea).

TRESNAK = Planifikatzeko tresnak (ebaluaketa edo programaketa egiteko gidak).

TEKNIKAK = Informaziora heltzeko edo aztertzeko tresnak: elkarrizketa, galdetegia, behaketa, beharrak zehazteko teknikak kontsentsuaren bila,... .

EMAITZA = Planifikazioaren emaitza (txostena, agiria).

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

UNITATEA	MAILA	HELBURUA	TRESNAK	TEKNIKAK	PRODUKTUA
GLU Taldea (gizarte langilea, hezitzailea) eta beste profesionalak	Operatiboa	Banako esku hartzea (eta familiakoa)	Ebaluaketa: Banako fitxa (adierazle sistema) Helburuen hipotesikako formulaketa sistema (SFOxH) Programaketa: Programaketa fitxa SFOxH	Behaketa Elkarriaketa Galdetegia	Ebaluaketa: Banako txostena ² Programaketa: Banako Hezkuntza Proiektua
Hezitzaileak	Operatiboa	Taldeko esku hartzea	Ebaluaketa: Adierazle Sistema (adingabeetan edo gazteetan zentratua) SFOxH Programaketa: Programaketa fitxa	Behaketa Elkarriaketa Galdetegia	Ebaluaketa: Talde txostena Programaketa: Talde proiektua
Proiektuko taldea (hezitzaileak eta baliabideko agenteak)	Operatiboa	Baliabide arautuetara igarotzea	Ebaluaketa: Adierazle Sistema (adingabeetan edo gazteetan zentratua eta baliabideetara egokitzearen adierazleak) SFOxH Programaketa: Programaketa fitxa	Behaketa Elkarriaketa Galdetegia	Ebaluaketa: Talde txostena eta baliabidean zentratua. Programaketa: Baliabideetara igarotzeko proiektua
GLU edo Departamentuko Taldea	Operatiboa	Esku hartze komunitarioa	Ebaluaketa: Adierazle Sistema (Komunitatean zentratutako adierazleak) Programaketa: Programaketa fitxa	Behaketa Elkarriaketa Galdetegia	Ebaluaketa: Komunitatean, taldean edo kolektiboan zentratutako txostena Programaketa: Komunitate proiektua (sentsibilizazioa,...)

² Bai txostena eta bai proiektua, txosten eta famili proiektu baten inguruan lan daitezke

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

UNITATEA	MAILA	HELBURUA	TRESNAK	TEKNIKAK	PRODUKTUA
Departamentuko taldea (GLU taldeak,...)	Estrategikoa Taktikoa Estrategikoa Taktikoa	Esku hartzearen multzoa	Ebaluaketa: Azterketa gidoia -beharren eta baliabideen (propioak zein kanpokoak) ebaluaketa- Bi urteko ebaluaketarako eskema Programaketa: Planifikazio estrategikoa Garapen plana	Behaketa Elkarriketa Galdetegia	Ebaluaketa: Azterketa (lau urtero) Bi urteko ebaluaketa (txostena) eta ebaluaketen laburpena (lau urtez behin) Programaketa: Ildo estrategikoak eta estrategiak lau urtetara Udal Programaren garapen plana
Kontsortzioa (koordinatzailea, batzorde teknikoa eta Gobernu Batzordea)	Estrategikoa Taktikoa Estrategikoa Taktikoa	Esku hartzearen multzoa	Ebaluaketa: Azterketa gidoia -beharren eta baliabideen (propioak zein kanpokoak) ebaluaketa- Bi urteko ebaluaketarako eskema Programaketa: Planifikazio estrategikoa Garapen plana	Behaketa Elkarriketa Galdetegia	Ebaluaketa: Gipuzkoa mailan egindako azterketei eta azterketen gaineko laburpen txostena Ebaluaketen laburpen txostena Programaketa: Ildo estrategikoak eta estrategiak lau urtetara Inguru Irekiko Hezkuntza Plana
Kontsortzioa eta udalerri desberdinetako departamentu taldeak	—	Esku hartzearen multzoa	Programaren fitxa teknikoa eta Gizarte-Hezkuntzan Esku Hartzeko Programa Markoa		Programaren fitxa teknikoa Kontsortzioaren Programa Markoa